

MARCELINO LANDA PASQUEL
Erronkaribarko Batzorde Nagusiko
idazkariak,

ZIURTATZEN DUT: Erronkaribarko
Batzorde Nagusiak 2020ko abenduaren 17n
egin ezohiko Osoko Bilkuraren aktak hitzez
hitz ondokoa jasotzen duela:

"2020ko abenduaren 17ko 18:30ean,
Erronkariko Batzar-etxean, Marcelino Landa
Pasquel idazkaria izanik eta Jone Alastuey
García Uztarrozeko udaleko alkatea
Batzordeburu dela, bera Uztarrozeko
ordezkari gisa agertuz, Erronkaribarko
Batzorde Nagusiak ezohiko osoko bilkura
egin du. Gainerako herrien izenean ondoko
ordezkariak bertaratu dira:

IZABA: Carlos Anaut Abadia
URZAINKI: Felix Galetx Laiana
ERRONKARI: Emilio Perez Orduna eta
Patricia Viscarret Goñi
GARDE: Jose Javier Echandi Sarries
BURGI: Jose Manuel Redrado Prat
BIDANKOZE: Tomas Pasquel Ayechu

Batzordeburuak bilkura hasi eta gai-
zerrendari jarraiturik honako erabaki hauek
hartu dira:

1. "ZELAIKO BARATZEA" BIDEA SEINALEZTATZEKO AKTA

"Zelaiako baratzea" tokiko bidea
(Bidankoze) seinaleztatzeari buruzko aktaren
berri eman da, 2020/11/13an egina.

2020/08/24ko bileran hartutako
erabakiarekin bat, dagokion batzordea eta
bidearekin muga egiten duen finkaren
titularrak (6. poligonoa, 2. partzela) inguru
horretan bildu ziren bidea seinaleztatzeko.

Inguruaz aztertu ondoren, batzordeak
erabaki zuen ez zela beharrezkoa bidea
markatzeko jarduerarik egitea; izan ere,
altuera handiko horma batek behar bezala
mugatzen du finka, bidetik bereizten duena,
eta bidea ibilgailuak ibiltzeko behar bezain

DON MARCELINO LANDA PASQUEL,
Secretario de la Junta General del Valle de
Roncal,

CERTIFICO: Que el Acta de la sesión
extraordinaria celebrada por la Junta General del
Valle de Roncal, el día diecisiete de diciembre de
dos mil veinte, dice literalmente como sigue:

"En la villa de Roncal y Casa del Valle,
siendo las dieciocho horas y treinta minutos del
día diecisiete de diciembre de dos mil veinte, con
asistencia del Secretario D. Marcelino Landa
Pasquel y bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa
de la villa de Uztároz Dña. Jone Alastuey García,
que concurre representando a esta villa, se reúne
la Junta General del Valle de Roncal, en sesión
extraordinaria, concurriendo por las demás villas
la representación siguiente:

POR ISABA: D. Carlos Anaut Abadía
POR URZAINQUI: D. Félix Galetx Laiana
POR RONCAL: D. Emilio Pérez Orduna y Dña.
Patricia Viscarret Goñi
POR GARDE: D. José Javier Echandi Sarries
POR BURGUI: D. José Manuel Redrado Prat
POR VIDÁNGOZ: D. Tomás Pasquel Ayechu

Abierta la sesión por la Sra. Presidenta y
siguiendo el orden del día, fueron adoptados los
siguientes acuerdos:

1º.- ACTA DE DELIMITACIÓN DEL CAMINO EN "HUERTA DE ZELAIA"

Se pone en conocimiento de la Junta el
Acta referida a la señalización del camino en la
zona denominada "Huerta de Zelaia",
jurisdicción de Vidángoz, levantada con fecha
13/11/2020.

En conformidad con el acuerdo
adoptado en sesión de fecha 24/08/2020, la
comisión correspondiente, junto con los
titulares de la finca (polígono 6, parcela 2), que
linda con el camino en cuestión, se reúnen en la
zona para la señalización del mismo.

Revisada la zona, la comisión de la Junta
decide que no es necesario llevar actuaciones de
marcación del camino, ya que la finca está
delimitada por un muro de gran altura que la
separa del camino, que está perfectamente
delimitado y con amplitud suficiente para

zabala da; beraz, finka eta bidearen arteko mendebaldeko muga argi dago.

Jasota geratu zen lurzatiaren titularrek ez zutela akta sinatu, horrekin ados ez zeudelako.

Akta ikusita, Batzordeak hori onestea eta bere espedientean artxibatzea erabaki du.

2. MAZEKO PISTAN AREKA BAT KONPONTZEKO ESKAERA

Maria Angeles Ezquer Aznarezek aurkeztutako idazkia irakurri da. Bertan azaltzen du Ontzibieta alderdian, Mazeko pistaren sarreran, eskuineko arekako ureroanbidea hondatu eta aldatu zela baso-ustiapien baten ondorioz, eta bere lurzattia mugatzen duten hesolak eta itxitura kaltetu zituela.

Eskuineko areka konpondu eta lehengoratzeko eskatzen du, finkan ura sar ez dadin eta sarbideak putzuz bete ez daitezen.

Batzordeak erabaki du Mankomunitateko mendizainari horren berri ematea, batzorde batekin batera ingurua aztertu eta horri buruzko txostena egiteko.

3.-BATZORDEBURUAREN EBAZPENA

Batzordeak jakinaren ganean geratu eta berretsi egin du Batzordeburuaren 2020/12/2ko ebazpena, familia-langileen bajak eta ordezkapenak betetzeko kontratazio-zerrenda onetsi zuena, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egina eta aurkeztua.

4.- OGZKO LANGILEEN IDAZKIA, ZERBITZU GUZTIAK EGOITZA BEREAN BATZEKO ESKATUZ

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko langileek aurkeztu duten idazkiaren berri eman da. Idazki horretan aditzera ematen dute zerbitzu guztiak (gizarte langilea, administrari laguntzailea eta gizarte hezitzailea) egoitza

circular vehículos, por lo que la delimitación de la finca con el camino, por la parte oeste está meridianamente clara.

Se hace constar que los titulares de la parcela no firman el Acta por estar disconformes con la misma.

La Junta, a la vista del Acta de referencia, acuerda su aprobación y el archivo de la misma en el expediente de su razón.

2º.- SOLICITUD ARREGLO CUNETAS EN PISTA DE MAZE

Se da lectura al escrito que presenta María Ángeles Ezquer Aznárez en el que expone que en el término de Oncibieta, a la entrada del carril de Maze, con motivo de una explotación forestal se modificó y estropeó la conducción de agua por la cuneta derecha del carril de Maze, afectando a las estacas y cierre que delimitan la finca de su propiedad.

Solicita el arreglo de la cuneta derecha, por donde iba siempre, para evitar que corra el agua por la finca y se encharquen los accesos.

Se acuerda poner el asunto en conocimiento del Guarda de la Mancomunidad para que, junto con una comisión de la Junta revisen la zona y eleven un informe sobre el particular.

3º.- RESOLUCIÓN DE LA SRA. PRESIDENTA

La Junta se da por enterada y ratifica la Resolución de la Sra. Presidenta, de fecha 2/12/2020, de aprobación y constitución de la lista de contratación de personas para cubrir las bajas y sustituciones de las Trabajadoras Familiares, confeccionada y presentada por el Servicio Navarro de Empleo.

4º.- PROPUESTA DEL PERSONAL DEL SSB DE UNIFICACIÓN DE LOCALES

Se da cuenta del escrito que presentan las personas trabajadoras del Servicio Social de Base en el que comunican a esta Junta General la necesidad de agrupar todos los servicios en los mismos locales, Trabajador/a Social, Auxiliar Administrativa y Educadora Social. Así mismo las Trabajadoras familiares disponer de un espacio común donde poder reunirse y disponer

berean bildu beharko liratekeela. Halaber, aipatzen dute familia-langileek ekipo informatikoa duen gune bat behar dutela, bertan biltzeko, on-line prestakuntza eta kontsultak egiteko, zenbait zerbitzu eta departamendurekin bilerak egiteko, etab.

Gizarte zerbitzuaren funtzionamendua berregituratzeko prozesua garatzen ari den honetan, ezinbestekotzat jotzen dute langile guztiak leku berean aritzea, talde-lana sendotzeko, koordinazioa hobetzeko eta ibarreko biztanleentzako ekintzak adostu eta burura eramateko.

Batzordeak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko langileei ondokoen berri eman nahi die: batetik, Izabako Udalarekin eta Osasun etxearekin lanean ari dela eraikinean dagoen albaitariaren bulegoa erabiltzeko, bertan gizarte hezitzailea kokatu eta, horrela, zerbitzu guztiak egoitza berean batzeko; eta bestetik, Kamineroen etxea delakoan hobekuntza-obrak eginen direla zerbitzu guztiak batzeko eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak hobe funtzionatu ahal izateko.

5.- GIZARTE HEZITZAILEAREN ESKAERA MODU TELEMATIKOAN LAN EGITEKO

Gizarte hezitzailearen idazkia irakurri da. Bertan baimena eskatzen du astean bi egunetan modu telematikoan lan egiteko, gehienetan astelehen edo asteazkenetan eta ostiraletan.

Adierazten du lanpostuaren ezaugarriek ordutegi-malgutasuna eskatzen dutela, arratsaldeetan eta jaiegunetan ere lan egin behar delarik, horrek dakarren mugikortasunarekin. Bermatzen du antolatzeko modu horrek ez duela eraginik izanen ez Zerbitzuan ez eta hezitzailearen eginkizunetan ere. Proposatzen du hilabete bateko edo biko probaldia egitea, ondoren balorazioa egiteko.

Kontuan harturik Zerbitzuaren programa batzuek aurrez aurrekoa eskatzen dutela baina beste batzuen eginkizunak eta gestioak (telefono bidezko harrera, elkarrizketak, bilerak eta abar) modu

de equipo informático para realizar formación on-line, consultas, puestas al día de información con otros Servicios, con Departamentos, etc.

Ante el nuevo proceso de reestructuración en cuanto al funcionamiento del Servicio Social y para potenciar el trabajo en equipo, consideran imprescindible la reagrupación de los distintos profesionales para facilitar la coordinación del mismo y consensuar y realizar las acciones en beneficio de la población del Valle de Roncal.

La Junta acuerda comunicar al equipo de personas trabajadoras del Servicio Social de Base que se está trabajando con el Ayuntamiento de Isaba y el Centro de Salud, la utilización del despacho del veterinario en el edificio del Centro de Salud para ubicar a la Educadora Social y así agrupar todos los servicios en el mismo local. Por otro lado, indicar que se van a llevar cabo mejoras en el piso denominado de camineros para agrupar todos los servicios y disponer de espacio común para un mejor funcionamiento del Servicio Social de Base.

5º.- SOLICITUD DE LA EDUCADORA SOCIAL PARA TRABAJAR DE FORMA TELEMÁTICA

Se da lectura al escrito de la Educadora Social en el que solicita el permiso de esta Junta para poder trabajar dos días a la semana de manera telemática, generalmente los lunes o miércoles y los viernes.

Indica que las características del puesto de trabajo exigen flexibilidad de horarios, trabajando por las tardes e incluso en días festivos, lo que supone bastante movilidad. Garantiza, de antemano que esta forma de organización no va a afectar ni al Servicio ni a las funciones de la Educadora y propone hacer un período de prueba de uno o dos meses, para su valoración.

La Junta, habida cuenta que algunos de los programas del Servicio tienen un contenido más presencial y otros que conllevan más gestiones telefónicas, entrevistas, reuniones, etc., tareas que se pueden desarrollar de forma telemática, acuerda acceder a lo solicitado, conforme a las normas que expone en su escrito y tomando como prueba un periodo de dos meses.

telematikoan egin daitezkeela, Batzordeak eskaera onestea erabaki du, idazkian agertu duenari jarraikiz eta bi hilabeteko probaldia eginez.

6.- TURISMO ELKARTEARENTZAKO DIRULAGUNTZA

2020/11/11n egindako Osoko Bilkuran, Batzordeak honako erabakiak hartu zituen: Erronkaribarko Turismo Zerbitzu eta Jardueren Elkarteari 3.710,00 euroko dirulaguntza ematea ezestea, ibarra helmuga turistiko gisa dinamizatzeko helburu zuena, publizitate-jarduerak sustatzeko kanpaina baten bidez; gaia Turismo Batzordeari igortzea, hori aztertu eta Batzordeari berri emateko..

Turismo elkarteak dioenez, Turismo batzordeak eta elkarteak adostu dute hitzarmena hurrengo urtean sinatzea eta aurtun elkarteari 3.700,00 euro ematea, betiere xedea justifikatzen bada.

Idazkian adierazten dute zenbateko hori erabiliko dela urritik abendura bitarteko laguntza tekniko bat kontratatze eta turismoa sustatzeko kanpainaren lehen fasea abian jartzeko.

Zenbatekoaren xedea ontzat hartuta, Batzordeak Turismo Zerbitzu eta Jardueren Elkarteari 3.710,00 euro ematea erabaki du, laguntza teknikoa kontratatzeagatik eta turismoa sustatzeko kanpaina abian jartzeagatik.

7.- 2021EKO AURREKONTU OROKOR BAKARRA

2021eko Aurrekontu Orokor Bakarraren bozketa egin aurretik, Urzainkiko eta Izabako ordezkariak proposatu dute ibarrean banda zabala instalatzeko 450.000,00 euroko kontusaila sartzea, zenbateko bereko kreditu baten bidez finantzatzeko dena; hori dena 2020/08/24an egindako Osoko Bilkuran ibarrean banda zabala instalatzeari buruz hartutako erabakiarekin bat.

6º.- APORTACIÓN AYUDA ECONÓMICA A LA ASOCIACIÓN TURÍSTICA

En la sesión celebrada el día 11/11/2020 se desestimó la concesión de 3.710,00 euros a la Asociación de Servicios y Actividades de Turismo del Valle de Roncal para la dinamización del destino Valle de Roncal, a través de una campaña de promoción de acciones publicitarias y se acordó trasladar el asunto a la Comisión de Turismo para que lo tratase e informase a esta Junta.

La Asociación Turística del Valle de Roncal indica que, de común acuerdo, entre la Comisión de Turismo de la Junta y la citada Asociación, se pospone la firma del Convenio hasta el año que viene y dotar a la Asociación Turística de 3.700,00 euros durante el año 2020, siempre que quede justificado su destino.

Presentan escrito indicando que el destino de la cantidad señalada es para la contratación de una asistencia técnica entre octubre y diciembre que ya se ha llevado a efecto y para la puesta en marcha de la primera fase de campaña de promoción turística.

La Junta, considerando justificado el destino de la cantidad mencionada, acuerda conceder a la Asociación de Servicios y Actividades de Turismo del Valle de Roncal la cantidad de 3.710,00 euros por la contratación de la asistencia técnica y la puesta en marcha de la campaña de promoción turística.

7º.- PRESUPUESTO GENERAL ÚNICO 2021

En relación con el Presupuesto General Único para 2021, antes de proceder a la votación para aprobar o no el presupuesto, las representaciones de Urzainqui e Isaba proponen incluir en el presupuesto una partida, por importe de 450.000,00 euros para la instalación de la banda ancha en todo el Valle de Roncal que se financiará mediante la concertación de un crédito, por el importe indicado. Todo ello, en conformidad con el acuerdo adoptado en sesión de fecha 24/08/2020, sobre la instalación de la banda ancha en el Valle de Roncal.

Sometido el asunto a votación da el resultado siguiente: Isaba, Urzainqui, Garde, Burgui y Vidángoiz votan a favor de la inclusión

Gaia bozkatu ondoren, honako emaitza eman da: Izaba, Urzainki, Garde, Burgi eta Bidankoze 2021eko aurrekontuan kontusaila sartzearen alde; Uztarrozek abstentzioa eman du. Horrenbestez, gehiengoz erabaki da kontusaila 2021eko aurrekontuan sartzea.

Proposamena onartu ondoren, 2021eko Aurrekontu Orokor Bakarra hasiera batean onestea erabaki da, Izabako ordezkariaren aurkako botoarekin. Bertan 1.356.506,50 euroko gastuen eta diru-sarreraren hasierako kredituak jasotzen dira. Era berean, aurrekontua betearazteko oinarriak eta aurrekontua hamabost egun baliouduneko epean jendaurrean jartzea erabaki da, erreklamazioak egin ahal izateko.

Izabako ordezkariak ez du aurrekontua onetsi ondoko arrazoiengatik:

"Gure oniritziari esker, aurreko urteetan Lan Aholkularitzako gastuak murriztu ditugu, eta 'diruzainaren ordainsaria' kontusail zaharkitua kendu dugu.

Orain, honakoak proposatu nahi ditugu dirua aurrezteko: batetik, aholkularitza juridikoarekin dugun hitzarmena bertan behera uztea; eta bestetik, idazkari eta kontuhartzailearen lanpostua lanaldi osokoa ez izatea, tokiko maparen erreformari eta zenbait plaza betetzeari dagokienez aldezen dugunarekin bat.

Beste alde batetik, onartezina iruditzen zaigu Cederna Garalurren laguntza teknikoaren finantzaketa planteatzea herri guztien oniritziarik gabe, udalen aurrekontuak baldintzatzen direlako; are gehiago, finantzaketa hori biztanleen proportzioan izatea nahi denean. Izan ere, ordenantzetan ordezkariaren botoa honela da: herri bati boto bat. Indar bera erabakian, indar bera finantzaketan. Horrenbestez, gure proposamena da Batzorde Nagusiak gastu guztia bere gain hartzea, iaz bezala.

Azkenik, 'mugak' kontusaila kendu beharrean murriztea proposatzen dugu. Ibarrek muga egiten du mugaren beste aldeko zenbait herriekin, eta aperitibo edo bazkari batera gonbidatzen ditugu mugak aztertzen diren egunean. Funtsezkoa iruditzen zaigu inguruko herriekin harreman onak izan jarraitzea."

de la partida de referencia, en el presupuesto para 2021; Uztárroz se abstiene. Por mayoría se acuerda incluir la partida en el presupuesto de 2021.

Aprobada la propuesta se acuerda, por mayoría, con el voto en contra de la representación de Isaba, aprobar inicialmente el Presupuesto General Único para 2021, en el que constan unos créditos iniciales de gastos e ingresos de 1.356.506,50 euros, aprobar, asimismo, las bases de ejecución de dicho presupuesto y exponer el presupuesto aprobado al público, por espacio de quince días hábiles a los efectos de reclamaciones.

La representación de Isaba rechaza la aprobación del presupuesto por varios motivos.

En el apartado de gastos, gracias a nuestra aprobación, estos años anteriores hemos reducido gastos en Asesoría Laboral y hemos suprimido la obsoleta retribución al depositario.

Ahora proponemos cancelar el convenio con la asesoría jurídica por entender que obtenemos ahorro, así como no contratar a jornada completa una plaza de secretaria e intervención en coherencia con lo que defendemos en cuanto a la reforma del mapa local y la provisión de determinadas plazas.

Por otro lado, es de todo punto inadmisibles plantear la financiación de la asistencia técnica de Cederna Garalur sin contar con el visto bueno de la totalidad de los pueblos, condicionando de forma unilateral sus presupuestos e incluso pretendiendo que dicha financiación sea en proporción a los habitantes cuando el voto de las diferentes representaciones está regulado en las ordenanzas de forma ponderada; a un pueblo un voto. Misma fuerza en la decisión, misma fuerza en la financiación. En este caso concreto que financie el servicio íntegro la Junta General, como el año pasado.

Disminuir la partida de los límites, pero no suprimirla. El Valle de Roncal muga con varios pueblos del otro lado de la frontera y se les invita a un aperitivo o comida el día que se revisan los límites. Mantener unas buenas relaciones con los pueblos vecinos, nos parece vital.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las veinte horas y quince minutos del día señalado al inicio, por la Sra. Presidenta se

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 20:15ean Batzordeburuak bilkura amaitu du, honako akta hau idatzi, irakurri eta ontzat emana, bertaratutakoek sinaturik eta neronek, idazkariak, egiaztaturik.”

Eta behar den lekuan ager dadin, ontzat emana eta zigilatuta, honako egiaztagiri hau egin eta Erronkaribarko udaletara bidali da iragarki-oholetan jendaurrean jartzeko.

Erronkarin, 2020ko abenduaren 17an.

Vº Bº/O.E.
LA PRESIDENTA/BATZORDEBURUA

Fdo./Sin.: Jone Alastuey García

levanta la sesión, redactándose la presente Acta que, leída y hallada conforme, es firmada por todos los asistentes, conmigo el Secretario que certifico.”

Y para que conste donde proceda, se expide la presente certificación, Visada y Sellada, y se envía a cada uno de los Ayuntamientos del Valle, para su exposición en el Tablón de Anuncios, en Roncal a diecisiete de diciembre de dos mil veinte.

EL SECRETARIO/IDAZKARIA

Fdo./Sin. Marcelino Landa Pasquel